



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/07/25

## **Bizkaiko Batzar Nagusiek Hervé Falcianiren estradizinoari ezetz esateko eskatu deutsie Estaduko Gobernuari**

Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak, Podemos Bizkaiaren hasierako Arauz besteko Proposamen baten ganean Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta Podemos Bizkaiak berak adostutako zuzenketa-eske transakzionala onetsi dau gaur goizean.

Testuak eukazan lau puntuetatik bi aho batez onetsi dira. Bertan, Hervé Falcianiren estradizinoari ezetz esateko eskatzen jako Estaduko Gobernuari, “iruzur fiskalaren kontrako burrukan hainbat administrazio publikori emondako laguntzea eskertzeko”. Modu berean, Batzarrek “euren konpromisoa eta lankidetzeta” erakutsi gura deutsee iruzur eta iges fiskalaren kontrako burrukan justiziar lagunduko deustien persona guztiei; bukatzeko, Europar Batzordeari “armonizazio fiskaleko politikea” bultzatzeko eskatzen deustie, “beti be Aldundien eskumenak errespetauz”, eta Administrazio Publikoei iruzur fiskalaren kontrako neurriak bultzatzen jarraitzeko eskaria egiten deutsee.

Eneritz de Madariaga Podemos Bizkaia taldeko batzordekideak azaldu dauen moduan, Falciani ezaguna da nazinoarte mailan, *Falciani zerrendea* –Suitzako HSBC bankuaren bezeroen zerrenda bat– berak banatu ebalako, hainbat herrialdeetako justiziar igeslari fiskalak jazarteko aukerea emonez. Zehaztu danez, zerrenda horretan Bizkaiko 62 persona egozan. Bere taldearen eretziz, zuzenketa-eske transakzional horrek hasierako helburuari erantzuten deutso: “orain arte iruzur fiskala azaleratzen lagundu deuskuenak eta horretan jarraitzen dabenak ez kriminizetza”.

Ekain Rico bozeroale sozialistaren eretziz, testu horrek “oso mezu indartsua” zabaltzen dau, “saiheste fiskala argitzeko justiziar laguntzea inoiz ez dala kartzelagaz zigortu behar”, horrek “milaka tona botako leukezalako iruzur fiskalaren kontrako burrukarako politikaren ganera”. Antzera egin dau berba Kontxi Claver batzordekide jeltzaleak, baina argitu dau “ez jagokela Batzar honeei estatu burujabe eta demokratiko baten sistema judiziala zalantzan jartea”. Adierazo dauenez, “alkartzen gaituena, iruzur kasuak salatzen dituenen babesa hobetu behar dala da”.

“Bere herrialdean delitua eginez, gizon horrek gizateria osoarentzat positiboa dan zer edo zer egin dau, hau da, euren herrialdeetan, gurata, iruzurra egiten dabenak, argitara ateratea”, esan dau Arturo Aldecoa Talde Mistoko bozeroaleak. Javier Ruiz talde popularreko bozeroaleak, proposamenaren aldeko botoa emon arren, lehenengo puntua, EAJ-PNV taldeak, eremu judizialtan ez sartzeari buruz esandakoagaz “kontraesankorra” dala esan dau. Bukatzeko, Zigor Izuzkiza batzordekideak, estradizinoagaz ados egon ez arren, testuak “ez dituala Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumenak kontuan hartzen” adierazo dau. Hori dala eta, bere taldeak puntuka bereiztutako bozketea eskatu dau.

Eskari hori kontuan izanda, lehenengo puntu biak aho batez onetsi dira, eta azkenengo bietan EH Bildu abstenidu egin da, ganerako talde guztiek aldeko botoa emon daben bitartean.

## 2.785 AITORPEN PROPOSAMEN BALIO BARIK

Jose María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako foru diputatua Podemos Bizkaia taldeak eskatuta etorri da Batzar Nagusietara, 2017ko Errentaren aitorpenean Bizkaian 2.875 aitorpen proposamen balio barik iztea ekarri eban Arabako Foru Ogasunaren informazio akatsa zelan konpondu dan zehazteko. Argitu dauen moduan, balio barik izte hori hurrengo egunetan jakinarazo jaken zergadunei, euren autolikidazinoa aurkezteko beste zerbitzu batzuk hautatzeko aukerea emonez. “Zergadunen aldetik zerbitzu horreek oso balorazino ona daukie”.

“Benetan sentiduten dogu persona horreei eragindako eragozpenak, baina geneukan aukera bakarra proposamen horreek balio barik iztea eta euren autolikidazinoa aurkezteko beste zerbitzu batzuetara bideratzea zan”, esan dau amaitzeko.

## ONETSI EZ DIRAN ARAUZ BESTEKO PROPOSAMENAK

Eguneko gai zerrendea, Arauz Besteke Proposamen bi eztabaidatuz eta ez onetsiz osatu da. Podemos Bizkaia taldeak aurkeztu dauen lehenengoan eskaria egiten jakon Ogasun eta Finantza Sailari, urtero Persona Fisikoen Errentaren Zergaren Aitorpenen adierazle nagusiak aztertuko dituan txostena egiteko generoaren ikuspegitik. Gaiaren funtsean bat etorri arren, Foru Gobernua eusten daben taldeen eretziz ekimena “asmo txikikoa” da, eta Podemos Bizkaia taldeari EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen zuzenketa-eskea onesteko eskatu deusie. Dana dala, proposamena aurkeztu dauen taldeak ez dauenez onetsi, proposamenak ez dau aurrera egin, Talde Popularraren, Podemos Bizkaiairen eta EH Bilduren aldeko botoakaz, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen kontrakoakaz eta Talde Mistoaren abstentzinoagaz.

Saioa bukatzeko, Talde Popularraren beste ekimen bat baztertu da, Ondasun Higiezin gaineko Zergari (OHZ) buruzko Foru Arauaren 10.8 artikulua kentzeko. Artikulu horrek %50eko nahibadakotasuneko errekarua sartzea jasoten dau “zergadunaren edo errentaren edo erabileraren lagapenaren ondorioz beste persona batzuen bizilekua ez dan etxebizitza erabilerako higiezin” ganean. Arauz Besteke Proposamenaren alde proposamena aurkeztu dauen taldea eta Talde Misto bano ez dira agertu. Ganerako talde guztiek kontra bozkatu dabe.

NOTA DE PRENSA

25/07/18

## **Las Juntas Generales de Bizkaia instan al Gobierno del Estado a que deniegue la extradición de Hervé Falciani**

La Comisión de Economía y Hacienda de las Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado esta mañana una enmienda transaccional acordada por los grupos Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y Podemos Bizkaia a una Proposición No de Norma inicial de Podemos Bizkaia.

El texto, refrendado unánimemente en dos de sus cuatro puntos, insta al Gobierno del Estado a denegar la extradición de Hervé Falciani “en atención a su colaboración con las diferentes administraciones públicas en la lucha contra el fraude fiscal”. De igual manera manifiestan “su compromiso y colaboración” con todas aquellas personas que, en materia de lucha contra el fraude y evasión fiscal, colaboren con la justicia; en última instancia urgen a la Comisión Europea a que impulse “la política de armonización fiscal respetando siempre las competencias forales”, e instan a la Administraciones Públicas a seguir impulsando medidas contra el fraude fiscal.

Tal y como ha explicado la apoderada de Podemos Bizkaia, Eneritz de Madariaga, Falciani es conocido a nivel internacional por atribuírsele la distribución de la *Lista Falciani* - un listado de clientes del banco suizo HSBC- permitiendo a la justicia en varios países perseguir evasores fiscales. Una lista en la que, según ha detallado, incluía a 62 personas procedentes de Bizkaia. Para su grupo esta transaccional responde a su objetivo inicial: “No criminalizar a quienes hasta ahora han ayudado, y siguen haciéndolo, a sacar a la luz el fraude fiscal”.

En opinión del portavoz socialista Ekain Rico este texto lanza un mensaje “muy poderoso”, que es que “colaborar con la justicia para destapar la elusión fiscal nunca debe ser castigado con la cárcel”, ya que eso echaría “toneladas de tierra encima de la política de lucha contra el fraude fiscal”. En la misma línea la apoderada nacionalista Kontxi Claver, si bien ha aclarado que “no corresponde a esta Cámara dudar del sistema judicial de un estado soberano y democrático”, ha manifestado que “lo que nos une es que hay que mejorar la protección de quienes denuncian los casos de fraude”.

“Cometiendo un delito en su tierra este hombre ha hecho algo positivo para la humanidad y es que aquellos que defraudan deliberadamente a sus países queden expuestos a la luz”, ha argumentado el portavoz del Grupo Mixto Arturo Aldecoa. El portavoz popular Javier Ruiz, a pesar de votar favorablemente la propuesta ha tachado el primer punto de “contradictorio” con lo sugerido por el PNV sobre no realizar una intromisión en el ámbito judicial. Por último el apoderado Zigor Izuzkiza, a pesar de no estar de acuerdo con la extradición ha declarado que el texto “no tiene consideración las competencias de la Diputación Foral de Bizkaia”. Esto le ha llevado a su grupo a solicitar una votación separada por puntos.

Teniendo en cuenta esta petición, los dos primeros puntos han sido aprobados por unanimidad, mientras que en los dos últimos EH Bildu ha optado por la abstención a diferencia del resto de los grupos que han votado favorablemente.

## ANULACIÓN DE 2.785 PROPUESTAS DE DECLARACIÓN

El Diputado de Hacienda y Finanzas, Jose María Iruarrizaga, ha comparecido ante los grupos a petición del grupo Podemos Bizkaia para detallar cómo se ha solventado el error de información provocado por la Hacienda Foral de Álava que tuvo consecuencia la anulación de un 2.875 propuestas de declaración de la Renta 2017 en Bizkaia. Como ha aclarado esta anulación fue comunicada en los días posteriores a los y las contribuyentes ofreciéndoles la oportunidad de optar por otros servicios para presentar su autoliquidación. Unos servicios que se encuentran “muy bien valorados por los contribuyentes”.

“Lamentamos profundamente los inconvenientes que les podemos ocasionar a estas personas pero no había otra alternativa que anular esas propuestas y remitirles a otras vías para presentar su autoliquidación”, ha concluido.

## PROPOSICIONES NO DE NORMA RECHAZADAS

El orden del día se ha completado con el debate y rechazo de dos Proposiciones No de Norma. La primera de ellas, de Podemos Bizkaia, instaba al Departamento de Hacienda y Finanzas a elaborar un informe anual que analizara los principales indicadores de las Declaraciones del IRPF de Bizkaia desde la perspectiva de género. A pesar de coincidir en el fondo de la cuestión, los grupos que sustenta al Gobierno Foral han tachado la iniciativa de “poco ambiciosa” y han solicitado a Podemos Bizkaia que aceptara la enmienda presentada por PNV y PSE-EE. No obstante al no sustanciarse esa aceptación, la propuesta ha sido rechazada contando con el apoyo del Grupo Popular, Podemos Bizkaia y EH Bildu; los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos ha votado en contra; y el Grupo Mixto se ha abstenido.

La sesión se ha cerrado con el rechazo de una última iniciativa, esta vez del Grupo Popular, para la supresión del artículo 10.8 de la Norma Foral Sobre el Impuesto de Bienes Inmuebles. Este artículo recoge la introducción de un recargo potestativo del 50% “sobre los inmuebles de uso residencial que no constituyan la residencia del sujeto pasivo o de terceras personas por arrendamiento o cesión de uso”. La Proposición No de Norma ha contado únicamente con el apoyo del grupo proponente y del Grupo Mixto. El resto de grupos han optado por rechazarla.